

## VULTOURIS IBILBIDEA: Rincón de Belagua (Nafarroa)

ZAILTASUNA:  
MODERATUA



Mata de Hayako aparkalekutik atera –eskuinaldetik– eta basoan sartuko gara. 10 minutu pasa eta gero, eskuinalderantz doan bidetik igoko gara, eta erdi hegaletik jarraituko dugu, gutxi gorabehera, ordubetez. Behin errepidera iritsita, Arrakoko trikuharrira iritsiko gara 10 minutuan. Bidetik atzera egingen dugu –30 minutuz–, eta gero Dronako pistatik jarraituko dugu (jarraitu zutoinetako seinaleei). Ibaiaren ondora jaitsi eta pistatik jarraituko dugu Mata de Hayaraino.

Zenbait habitat ikusten ahal ditugu ibilbidean zehar: Pagadi-izeidi txiki bat zeharkatuta hasiko dugu bidea; gorosti-ale ederrak ere ikusi ahal izanen ditugu bertan. Aurrerago, jatorri glaziarra duen ibilgu bat


### IBILBIDEAREN FITXATEGIA



Ibilbidearen distantzia: 9,98 km  
Gutxieneko altituda: 934 m  
Gehieneko altituda: 1.149 m  
Gehieneko desnibela: 215 m

**Centro de Interpretación de la Naturaleza de Roncal**  
31415 RONCAL (Navarra)  
Tel.: (+34) 948 475 256  
it.roncal@navarra.es

<http://es.wikiloc.com/wikiloc/view.do?id=1686652>  
Argibide gehiago: [www.vultouris.net](http://www.vultouris.net) · [info@vultouris.net](mailto:info@vultouris.net)



zeharkatu eta pinu gorria eta larrea dauden eremu batean sartuko gara; hainbat zuhaixka ikusiko ditugu han: orrea, ezpela, elorria...

Basoan zehar joaten garen bitartean, isilik bagoaz, okil beltza entzuteko parada izanen dugu, edo, agian, ugaztunetako bat ikusiko dugu arratsean, hala nola orkatza, basurdea edo azeria. Hegazti sarraskijaleen mugimendua ere ikusten ahal da bertan, gure ibilbidearen aurrealdean dauden harkaitzetatik hurbil.

Azkenik, ibilbidearen bigarren zatian Belaguako ibarraren gainetik eskaintzen duen ikuspegi ederra nabarmenduko dugu; besteak beste, Lakartxela mendia eta Arrakogoitiko eremua ikusten da.